

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko ekainaren 8a. IX. urtea. 2.364. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



A. IMAZ

→ **Iritsi da jaietako Kukua.** Herenegun iluntzean jaitsi zen Anoetako jaiak iragartzen dituen Kukua eta atzo ere jaiak ez zuen etenik izan. Goizean gazteenen txanda izan zen, izan ere txikienek joko ugari izan zituzten plazan (Irudian). Gaur pilota partidekin hasiko dute eguna eta jubilatuen arteko toka txapelketa ere ikusi ahal izango da. Gauean Malakaton eta Xutik taldeen kontzertuak ikusi ahal izango dira. ◊ 4

Atez atekoaren aurkako sinadurak biltzen hasi da Tolosa Txukun plataforma

Bosgarren edukiontzia alde egiteko eta «atez atekoak sortu duen egonezinari erantzun bat ematearren» sortu dute taldea ◊ 3

Unai Otaño ibartarra, Urrezko Aizkolarien finalean

Maila nagusiko azken saioan izango da aizkolaria, igandean; Leitzako Eneko Saralegi 19 urtez azpikoaren finalean ariko da egun berean ◊ 6

Bigarren Eskuko Azoka hartuko du Villabonak gaur arratsaldean

Tolosaldeko Aste Berdearen barruko ekitaldia da; Tolosan, bihar, Ekobira ekoesperientzien azoka egingo dute egun guztian zehar, Trianguloan ◊ 2

Herria Kantuan Jaialdia egingo dute bihar, Alegiako plazan

Musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituzte herritarrek, 22:00etatik aurrera; lehenago, 20:00etan, zahagi ardoa egingo dute ◊ 7

Ezagutu Zuntzaren indarra

10Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

Alta (99€) eta instalazioa DOAN

Helmen handiagoko Wifi N Kable-modema, abiadurik handienarekin, DOAN

Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean DOAN eta BETIKO

19'9
€/hil

urtebetez

logikeline

943 31 86 11

San Francisco, 19 Tolosa



Banatzaileria ofiziala

Sustapen hau 2012/05/16 baino lehen egiten diren Zuntz Duteko 10M-ko DUOaren kontratazioei aplikatuko da. 12 hilabetez, aktibatzen denetik hasita, 12 hilabetez irauko konpromisoa. Baita 3000 baino lehen emateagatik 15€-ko zordunketa egingo da bete gabeko hilabete bakoitzeko. Zuntz Oplikoaren instalazio berrientzat soilik da dagoen alfa. Linea ez dago berriz. Euskaltelen Telefonía Mugikorreko abantaila bat da. Astean dut, etxean Internet duteen Euskalteko bezeroentzat soilik (Banda Zabal Finkoak), Zeharkako zerak ez daude sartuta.

Parte hartze prozesuaren hurrengo pausoa, kontsulta

Tolosako Udalak deitutako azken batzar irekia egin da Larramendi auzoko Arkaute etxean

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoari buruzko parte hartze prozesuaren azken batzar irekia egin zen herenegun arratsaldean, auzoko Arkaute etxean, eta hurrengo pausoa ekainaren 16ko kontsulta izango da. Azken batzar horretan azaldu zuten zeinek parte hartu ahalko duen kontsultan: Larramendi auzoan errodaturata dagoena, maiatzaren 16a edo lehenagotik, eta 18 urte beteak dituenak (kontsultaren egunean betetzen baditu ere balio du).

Kontsultarako errolda oinarri gisa hartzearen arrazoia zehaztu zuen Xabier Telleria udal teknikariak: «Bozkaketarako mekanismo kontrol bat zehaztu beharra dago, eta horregatik hartu da errodarena, hori baita udalaren zerranda objektiboa. Eta hauteskundeetan egiten den moduan, errolda data jakin bat arte hartu da kontuan».

Bozketarako mahaia Arkaute etxean bertan egingo da eta orduetgia 09:00etatik 20:00etara izango da.

Mahaian parte hartze prozesuko aholkulari taldeko bi kide izango dira, eta baita A proiektuaren aldeko eta B proiektuaren aldeko dauden bina pertsona ere. Bozketa itxi eta berehala Arkauten bertan egingo dute kontaketa, eta hau irekia izango da.

Hain justu, bilera ere zehatu zuten bozketa nola izango den. «Ahal den modurik sinpleenean jarri dugu, gaizki ulerturik ez izateko», azaldu zuten aholkularitza

taldekoek. Beraz, bi boto txartel izango dira. Batean A proiektua jarriko du eta bestean B proiektua. Lurperatzea bere barne hartzen duen proiektua A izeneko da eta lurperatzea ez duena B proiektua da. Bozketa egiteko lekuan zehaztuta egongo da proiektu bakoitza.

Bozkatzeko eskubidea dutenek atzo eta gaur bitartean jasoko dute beharrezko guztia etxeetan. Gutuna nominala izango da. Bertan, alde batetik, akreditazio orria egongo da, pertsona bakoitzaren izenarekin, eta orri hori derriroez eraman beharko da bozkaketa egunean.

Bestetik, bozkatzeko gutunazala eta bi boto txartelak egongo dira. Bozkaketa egunean derriroez nortasun agiriren bat eraman beharko da. Baldintzak betetzen dituen norbaiti ez bazaio gutuna iristen, udaletxera jo beharko du bere egoera aztertzerako.

Norbait ezin badu egun horretan bozkatzera joan, beste pertsona batekin eraman ahal izango du bere ordez botoa. Horretarako prestatu dagoen orrialde bat sinatuta eraman beharko da (udaletxean jaso daiteke edo udaleko webgunetik jaitzi), botoemailearen nortasun agiriren baten fotokopia eta bere akreditazio orria. Botoa eramango duen pertsonak ere identifikatzeko agiriren bat eraman behar du. Pertsona batek beste baten ordezkaritza lanak bakarrik egin dezake.

Larramendi Bizirik-en deialdia Larramendi Bizirik elkarteak ekitaldi bat antolatu du, biharko, hilaren 9, Arkaute parkean. 12:00etan hasiko da eta bertan «auzotarren beharrak, nahiak eta ilusioak» marraztuko dituzte. Auzotarrei eta tolosar guztiei egin die elkarteak ekitaldira joateko deia.

Azokek emango diote jarraipena Tolosaldeko Aste Berdeari

Villabonan, Bigarren Eskuko Azoka, eta Tolosan, Ekobira eta Truke Azoka, egingo dituzte asteburuan

I. Garcia Landa

Tolosaldeko Aste Berdearen hainbat ekitaldi izango dira gaurtik igandera bitarte, eta gehienetan protagonismoa azokek izango dute. Villabonan, aurreko urteetan egindakoari jarraituz, gaur arratsaldean Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute, objektuen bererabilpena bultzatzeko asmoz. Udalak postuak jarriko ditu, eta materiala salgai jartzeko interesa duenak 689 74 94 39 telefono zenbakira deitu behar du. Villabonan ere, bihar goizean, Atari Bizi lehiaketarako lore banaketa egingo dute Berdura plazan.

Tolosan bi azoka egingo dira asteburuan. Lehenengoa bihar izango da, goiz eta arratsaldean, Triangulua plazan: Ekobira eskolaren esperientzien azoka. Kutzaren

Ekogunea egitasmoak antolatzen du azoka, eta bertan «ingurumen gaietan kontzientziatzea, zerbitzu eta produktu ekologikoagoak kontsumitzea aukera ematea eta iraunkortasunaren aldeko esperientzia lokalak adierazteko» dute helburu antolatzaileek.

Ekobirako postuetan eskualdeko artisau eta ekoiak, Tolosako eta Aiztondoko denbora bankuak, Tolosako Ingurumen Zentroa, Mugarik Gabeko Albaitariak, Basherrri taldeko ekoiak produktu ekologikoekin, Tolosaldeko Zero Zabor plataformak eta Tolosaldeko kontsumo taldeak izango dira. Besteak beste, Mugarik Gabeko Albaitariak elkartearen postuan taberna jarriko dute, eta bertan elikadura burujabetzaren aldeko *Hamaiketako agroekologikoak* emango dituzte, 12:00etatik 14:00etara.

Igandean egingo dute beste azoka, Truke Azoka hain zuzen, Zerkausian. Tolosako Denbora Bankuak antolatu du eta edozein motatako materiala eramateko esperientzien azoka. Kutzaren

↓ Egitaraua

EKAINAK 8, GAUR

Villabona
■ 17:00-20:30. Bigarren Eskuko Azoka, Salvadora auzoan.

EKAINAK 9, BIHAR

Tolosa
■ 10:00-14:00 eta 16:30-19:30. Ekobira ekoesperientzien azoka, Triangulua plazan.
Villabona
■ 11:00. Atari Bizi lore lehiaketarako lore banaketa, Berdura plazan.

EKAINAK 10, IGANDEA

Tolosa
■ 10:00-14:00. Truke Azoka, Zerkausian.

materialengatik trukatu ahal izateko. Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko aukera ere izango dela diote Truke Azokaren antolatzaileek.

Udapasa Artistikoetarako izena emateko aukera hilaren 15a arte

I. Garcia Landa Tolosa

Beste urte batez, Artekin elkarteak Udapasa Artistikoak antolatu ditu Tolosako udal musikako eskolan. Uztailearen 2tik 13ra izango dira, asteleheneetik ostiralera, eta egun bakoitzean lau orduz ariko dira, 09:30etik 13:30era. Bertan 4 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu ahalko dute. Matrikulak 120 euro balio du eta hilaren 15era bitartean egin daiteke, 10:00etatik 13:00etara. Artekin elkartetik diotenez, «musika oinarritzat hartuta bestelako diziplinak landuko ditugu, hala nola, dantza, arte plastikoak, arte eszenikoak, erlaxazio teknikak eta hizkuntzak». Aitor Biain eta Maialen Plazaola dira irakasleak.

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Apartamendua.** Jaca eta Peñiscolan apartamentua alokatzen da udarako. Interesatuek, deitu 635 737043 telefono zenbakira.

Maroko musikaren bidez ezagutzeko

Fermin Muguruzaren 'Next Music Station' egitasmoaren 'Morocco' filma emango dute, bihar, Leidorren

I. Garcia Landa Tolosa

Azken asteetan Fermin Muguruzaren *Next Music Station* egitasmoaren filmak ematen ari dira eta, bihar, *Morocco* emango dute, Tolosako Leidor aretoan, 20:30ean. Imanol Ubeda kazetari eta musikari tolosarrak egingo du filmaren aurkezpena.

Aljazeera komunikabideak eskatu zion Fermin Muguruzari *Next Music Station* proiektua egiteko. Hamar filma egin ditu, bakoitza herrialde baten musika jasotzen duena. Bihar Leidorren emango dena Marokoko musika erakutsiko du.

Imanol Ubedak azaldu duenez, filmak «Maroko barruan hainbat Maroko daudela erakusten du». Marokoko musikari baten bitartez erakusten du bertako musika Muguruzak. Ubedak gaineratu duenez, «pertsonalki gustatu zait Muguruzak hartu duen papera. Ez da inoren gainetik jartzen eta bertako musikari baten begietara



Morocco filmeko irudi bat. HITZA

tik egiten du Marokotik bidaiara, eta beraiekin batera filma ikusten duenak ere bai».

Marokoko herri musika jasotzen da dokumentalean, eta baita gaur egun jorratzen ari diren estilo berriak ere. «Hip-hop musika bere bidea egiten ari da Marokon, eta gazte jendea erakartzen ari da», esan du Ubedak. «Musikaren bitartez aldarrikapenak ere bere lekua du, garai berriei erantzun berriak emanez». Zentzu horretan, musikari tolosarren ustez, «ez gara hain ezberdinak».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Beren egitasmoa defendatzen duten herritarren sinadurak biltzeari ekingo dio taldeak. I. URKIZU

Zero Waste Europe taldeko zuzendaria izango da Tolosan

Foru Aldundia hondakinak kudeatzeko estrategia aurkezten ari da herrietan, adituen hitzaldiekin

I. Urkizu

Zero Waste Europe (*Europa Zero Zabor*) taldeko zuzendaria, Joan Marc Simon, Tolosan izango da gaur, 19:00etan, hondakinak kudeaketaren inguruan hitz egiteko.

Gipuzkoako Foru Aldundia hondakinak kudeatzeko estrategia berriaren aurkezpenak egiten ari da, azken egunotan, Gipuzkoako hainbat herritan. Tolosako aurkezpenaz gain, horrela, Donostian, Pasaian, Zarautzen eta Arrasaten ere egin dituzte saiokak. Antonio Maria Labaien kultur

etxean izango da Tolosako saioa, 19:00etatik aurrera, eta Joan Marc Simon, Zero Waste Europe taldeko zuzendaria, izango da hizlarietako bat. Kataluniarra da sortzez, Belgikan lan egiten duen arren. Hondakinaren esparruan, errausketaren aurkako GAIA taldeko kidea ere bada Simon.

Saioko beste hizlaria, berriz, Ainhoa Iraola izango da; Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendaria da bera. Biologian lizentziatua, eta geroztik ingurumenaren eta hondakinak kudeaketaren inguruan hainbat ikasketak burututakoa da. Aranzadi Zientzia Elkartearentzat ere argitalpenak egin izan ditu.

Besteak beste, bere esperientziatik hitz egingo du, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendari karguak hondakinak kudeaketaren gaian aritzea ekarri baitio.

'Titirijuegos' ikuskizun parte-hartzailea izango da, bihar, Topic zentroan

Los Duendes antzerki talde valentziarraren obra honek, hainbat sari eta aipamen jaso ditu aurten

I. Urkizu

Los Duendes antzerki talde valentziarra Topic zentroko oholtzan izango da, bihar, 18:30ean, *Titirijuegos* obrarekin. Hiru urtetik aurrerako haur eta gaztetxoei begirako antzerkia da, eta Willy iratxoia izango da protagonista; Terramar izeneko lurralde sor-

gindutik ipuinak hartu eta haurrei kontatzen dizkie berak.

Topic-eko antolatzaileek azaldu dutenez, Alberto Cebreirok zuzentzen duen konpainiaren obra gertakizunak sinpleak dira, baina ikus-entzuleen parte-hartzea erabatekoa izatea lortzen dute Los Duendes taldekoek. Horrela beraz, haur eta gaztetxoek istorioko haria gidatuko dute, nolabait.

Aipatzeko da, Los Duendes taldeak Terrassa-ko (Herrialde Katalanak) txotxongilo jaialdiko ikuskizun onenaren saria jaso zuela antzezlan honekin, besteak beste.

→ Laburrak

Corpus Christi jaia ospatuko dute etzi

ERLUIJOA ▶ Etzi, Corpus Christi jaia ospatuko dute Santa Maria parrokian. Meza nagusia 12:00etan izango da, eta Santa Maria Kaperak abestuko du. Ondoren, prozesioa izango da, ibilbideko aldareetan geldialdiak eginez.

1.300 lagun bilduko dira Laskorain ikastolako jaian

GIZARTEA ▶ Igandean ospatuko dute Laskorain ikastolaren eguna. Bizikleta ibilaldiarekin hasiko dute jaia, eta hamaiketakoaren ondoren, jokoan egingo dituzte. Gurasoek ikastolako patioan prestatutako paella izango dute bazkaritarako, eta 1.300 lagun elkartuko dira mahaiaren inguruan. Arratsaldean, jokoak, pailazoak eta Unsain Anaia taldearen emaldia izango dira.

Bosgarren edukiontzia alde egiteko sortu dute Tolosa Txukun plataforma

Atez ateko bilketa sistemarekin ados ez dauden herritarren sinadurak bilduko dituzte ekainean

Itzea Urkizu

Tolosa Txukun izeneko herritarren plataforma aurkeztu zuten, pasa den asteazkenean, bosgarren edukiontzia defendatu, eta «atez ateko bilketa sistemak sortutako egonezinari erantzun bat ematearren».

Agerraldian Patxi Amantegi plataformako ordezkariak azaldu zuenez, Tolosan «egonezina» sortu da zenbait herritarren artean, atez ateko bilketa sistema dela eta: «Gure asmoa aipatutako bilketa sistema horrekin arduratuta dauden tolosarren kezka jasotzea eta bideratzea da».

Helburu honi begira, Tolosa Txukun plataformako kideek sinadurak biltzeari ekin diote, kanpaina baten bitartez: «Posta elektronikoko bidez biltzen hasi gara lehen sinadurak, eta dezente jaso ditugu. Erantzun honen aurrean, herritar gehiagoren iritzia jaso behar direla uste dugu, eta ekaineko larunbatetan, sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditugu kaleko hainbat gunetan, jendeak gure egitasmoarekin bat egin dezan».

Bide beretik, Tolosa Txukun

plataformaren inguruko informazioa banatuko dute Tolosako buzoietan, eta informazioak atxikita ekarriko du sinadurak jasotzeko orria ere.

Datu guztiak biltzen dituztenean, udalera helaraztea da plataformaren nahia.

Atez ateko bilketaren aurka

Tolosa Txukun plataformako kideek argi azaldu zuten beren nahia: «Materia organikoa jasotzeko erabiltzen den edukiontzi marroia, bosgarren edukiontzia, berehala jartzeko eskatzen dugu, horrela, txukun-txukun, gaikako bilketaren portzentaiak igo daitezten».

Plataformako kideen ustez, «ezinbestekoa» da, udalaren alde, herritarrak hondakinaren gaian kontzientziatzeko kanpainak egitea: «Hor dago gakoa, ahalik eta gehien saihestu, birziklatu eta konpostatu behar da».

Bide honetan, beraz, atez ateko bilketa sistemaren aurka daude Tolosa Txukun plataformako kideak: «Bosgarren edukiontzia bidez egindako bilketarekin alde-arre, zikina, osasungaitza eta deserosoa da. Eta bilketa ez da asko igotzen, batzuetan ia ezer ez».

Izan ere, plataformako kideen ustez, atez ateko bilketa sistemaren emaitzak «oso lotuta daude behartzearekin», Amantegik azaldu zuenez: «Bilketa tasak altuak dira, bai, baina zein momentu zehaztuz gaudu orain? De-

nen begi-bistan eta zainduta daude orain, atez ateko bilketa sistema duten herritarrak». Horrela beraz, jendea ezin dela «behartu» aldarrikatu zuten. Honen harira, duela urte batzuk gaikako bilketa hasi zenean, «herritarrak behartu gabe eta pixkana birziklatzen hasi» zirela azpimarratu zuten Tolosa Txukuneko kideek.

Era berean, atez ateko bilketa sistema «garestia» dela ere nabarmendu zuten Amantegik aurkezpenean: «Krisi garai honetan, ez da egokia gastu hau sortzea».

Atez ateko sistema «zikina, osasungaitza eta estetikaren aurkakoa» dela diote

Estetikari buruz ere aritu zen Tolosa Txukuneko bozeramalea: «Pisuzko arrazoia ez den arren, atez ateko bilketa sistema ez da batere estetikoa». Azkenik, segurtasunik ezaren argudioa nabarmendu zuten Patxi Amantegik: «Norberaren intimitatea bortxatzen du sistema honek: paperak, fakturak eta antzekoak kontrolpean eduki daitezke, etxe bakoitzak bere edukiontzitoxa baitu zutabeen. Eta gauza bera gertatzen da pixoihaiekin nahiz sendagaiekin ere. Arazo hau ez duenak ez du ikusten, baina gauza horiek oso kontuan izan behar dira sistemak aukeratzekoan».

• tolosa@hitza.info

Kukuaren jaitsierarekin batera hasi dira atsedeenik ez duten jaiak, Anoetan

Malakaton taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da gaur, 23:30etik aurrera, herriko plazan

Asier Imaz Anoeta



Anoetan jaiel hasiera eman zien Kukuaren jaitsierarekin, herenegun. A. IMAZ

Anoetako jaiak herenegun hasi ziren, Kukuaren jaitsierarekin. Aurrez, Koadrilen Eguna eta Dantzari Txiki Eguna ospatu bazituzten ere, egunez-eguneko festa Kukuaren jaitsierarekin hasi zen. Atzo, Korputz Eguna eta Umeen-Mozorro Eguna ospatu zituzten. Txikiak goiz guztian zehar jolasean ibili ziren herriko plazan, puzgarrien artean, mozo-roturik. Koxkorraoek ere izan zuten euren txokoa, bideo joko edo bi gurpildun ibilgailuen gai-

nean. Arratsaldean, guztiek, Poxpolo ta Konpainiaren eta buruhandiek bisita izan zuten. Afaltzeko ezker abertzaleak saiheski jatea antolatu zuen, eta DJ Bull izan zen musikaren arduraduna,

goizeko ordu txikiak arte. Asteburuko ateetan, Jubilatuen arteko toka txapelketa egongo da gaur, 11:00etan. Gauetz, berriz, Malakaton taldeaz gozatzeko aukera egongo da.

↓ Egitaraua

EKAINAK 8, GAUR

- **10:00.** XV. Esku Pilota Herri Txapelketaren finalak, Udal Pilota Eskolak antolatuturik.
- **11:00.** Jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna elkarteak antolatuturik.
- **12:30.** Apar Festa umeentzat.
- **17:30.** Play-back-a, plazan.
- **19:00.** Loatzoko talde instrumentalaren kontzertua, plazan.
- **20:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira, herriko txistulariekin.
- **23:30.** Kontzertua plazan, Xutik eta Malakaton taldeekin.

EKAINAK 9, BIHAR GAZTEEN EGUNA

- **11:00.** Ume jolasak plazan, Kulki Taldearekin.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariekin.
- **15:30.** Mus Txapelketa, Atea-ga Elkarteak antolatuturik.

- **16:00.** Txirrindulari Lasterketa, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuturik (alebinak eta infantilak).
- **17:00.** Ginkana eta ume jolasak plazan, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuturik.
- **18:00.** Gazteen kalejira dantza eginez.
- **19:00.** Sagardo dastatzea, txorizo eta gazta pintxoekin, Kuku Elkarteak antolatuturik.
- **21:00.** Herri afaria frontoian. Gaur amaitzen da izena emateko eguna, udaletxean edo liburutegian.
- **23:30.** Gazteen dantza, plazan.
- **Ondoren.** Kontzertua plazan, Kokein eta Skatu taldeekin, herriko eragileek antolatuta.

EKAINAK 10, ETZI

- **10:00.** Txirrindulari Lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni

- Urkolaren omenez, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuturik (junior mailakoak).
- **11:00.** Gorritiren jaialdia plazan, zezentxo eta ponyekin jolasteko aukera egongo da.
- **12:00.** Paleta Txapelketa finalak frontoian, Kuku Pilota Elkarteak antolatuturik.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **17:30.** Anoeta eta Iruraren arteko Triatloi Indor lehiaketa (bizikleta, korrika eta arrauna), plazan.
- **Ondoren.** Anoetako dantza taldearen emanaldia (gazte-txoen taldea), plaza txikian.
- **19:00.** Kupela erromeria taldea 20:30ak arte, plazan.
- **23:00.** Kupela erromeria taldearen jarraipena.
- **24:00.** Kukuaren igoera kanpandorrera.
- **Ondoren.** Erromeriaren jarraipena.

Kiroldegiko harpidedunek eta ez direnek udako kirol eskaintza dute eskura

Abraham Olanok kiroldegian egingo dituzte ikastaroak; izena emateko garaian laguntzak egongo dira

A. Imaz Anoeta

Anoetako Abraham Olanok Kiroldegian udako kirol eskaintzak aurkeztu zituzte, eta harpidedunek edo ez direnek, izena emateko epea zabalik dute. Pilates, aerobik, abdominal hipopresiboak,

cycling, patinajea edo kenpo kai ikastaroetan apuntatzeko, kiroldegira joan behar da. Matrikula egiteko garaian, beharpen ugari egongo dira: gazte txartelarekin, familia ugariarentzat, langabe-tuentzat, ikasleentzat, jubilatua eta pentsionistentzat eta kiroldegiko abonua dutenentzat, besteak beste. Beherapena eduki ahal izateko, Anoetan erroldaturik egotea beharrezkoa izango da. Informazio gehiagorako, 943 65 1333 zenbakira deitu behar da, edo anoeta@bpxport.es helbidera idatzi.

Plastikozko tapoia biltzea eskatu dute

A. Imaz

Jesusen Bihotza ikastolatik Pausoka Elkarteari elkartasuna azaltzeko gonbita egin dute. Herritar guztiengana zuzendu dira ikastolatik, behar bereziak dituzten umeen guraso elkarteari laguntzeko eskatuz. Pausokaren alde egiteko, plastikozko tapoia biltzea eskatu dute, «tona bakoitzeko 300 euro jasoko baitituzte». Behin tapoia bildu ondoren, Zentroko idazkaritzan, Txermi-

neko sarreran edo Zizurkileko sarreran utzi behar dira, horretarako egokiturik egongo diren kuxtetan. Udako oporraldian, aldiz, herriko hainbat dendetan jarriko dute tapoia uzteko aukera.

Pausoka elkartearen alde zuzenean dirua bidali nahi duenak, kontu korrante honetan sartu behar du bere ekarpena, 2101-0006-400013001474 zenbakian.

Informazio gehiago www.pausokaelkartea.org webgunean dago.

→ Laburrak

'English Festival' DVDa salgai jarri dute

HEZKUNTZA > Jesusen Bihotzako DBH 3. mailako ikasleek, ikasketa bidaiarako dirua biltzeko *English Festival* DVDa jarri dute salgai, 4 euroren truke. DVDa erosi nahi duenak ikastolako idazkaritzara joatea nahikoa izango du.

Fleming ikastetxeko ikasturte amaierako jaiak

VILLABONA > Fleming ikastetxean ikasturte amaierako jaialdia egingo dute bihar, hilaren 9an. 09:00etan, pala eta esku pilota txapelketa jokatu da Bearzanan. 11:00etan, emanaldiak Maiatza Lehenengoaren plazan hasiko dira. 12:30ean, Aljibean, erakusketa zabalduko dute, 14:00ak arte. Ondoren bazkaria egingo dute eta 15:30ean, tailerrak egongo dira, DJ baten laguntzaz.





Ezenarro

SAN FRANTZISKO 26, Behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36

ezenarrosl@hotmail.com

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea
20200 BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK

Gotorlekua izenean baino ez duen herria gertutik ezagutzeko parada ematen du ibilbideak; lehendabizi, Gabirondotarren baserriraino joan-itzulia, eta ondoren, plazatik abiatuta, beste bi joan-etorri.

Gaztelun zeharkaldia, muturretik muturrera

Iñigo Terradillos

Landa eremuko herri tradizionala da Gaztelu. Elizak eta frontoiak osatzen dute erdigunea, eta ia baserri gehienak sakabanaturik daude. Bertan, baina, aldi berean, urrutian. Mendiek inguratutik, isolaturik, galduta balego bezala bizi dela esan daiteke. Ezaugarri horri esker, hain zuzen ere, mantendu du Gazteluk bere xarma. Bada, proposatzen den ibilbidea egokia da herria barrubarrutik ezagutzeko, bai erdiguneari, bai eta kanpoaldeari dago-kionez, eta baita, bide batez, bere historia zertxobait ikasteko ere.

Herriaren izenak eraikuntza bati egiten dio erreferentzia, usitez, Uli gailurrean Erdi Aroan eraiki zuten gotorlekuari. Baina, gaurdaino ez da Nafarroarekin muga egiten duen mendian hori frogatzen duen ezer aurkitu.

Bideari ekiteko, plazara iritsi behar da lehendabizi. Gaztelu dioen seinalea igaro, eta udal-etxea pasa eta segituan ailegatzen da bertara. Herriaren berezitasunetako bat izan daiteke hori, udal-etxea herriguneari ez egotea, alegia. Baina, ezin esan urrun dagoenik. Pilotaleku ederra, duela gutxi zaharberrituriko herriko elkartea eta eliza dira plazan dauden eraikinak. Pilotalekuaren eskuinetik, futbol zelai zaharkituaren ondortik doan bidea hartu eta Gabirondo baserriraino joan behar da.

Joxe Gabirondo trontzarari eta segalari handiaren baserria begiztatu aurretik, ordea, 1886. urteko hilerria utziko du atzean ibiltariak. Errepidea da, eta bidearen zatirik handiena zuhaizpean, beraz, itzalean dago. Hori bai, Hosto Txiki baserria igarotzearekin ba-

tera, ikuspegia zabaldu egiten da, eta bertako astoak lasai ederrean daudela ikustearekin batera, urrunean altzatzen diren gailurrak ikus daitezke.

Zelaiak eta arbolak

Ostera, pausoak ematen hastearekin batera, bidea itzalean jarritako dute berriro arbolak. Eguzkia den egunetan, bereziki, eskertuko du hori ibiltariak. Bada, Hosto Txikitik Hosto Handira, eta baserri hori igarotzean bidegurutzetako dago. Eskuineko bidexkari kasurik egin gabe, zuzenean jarraitu behar da Gabirondoraino iristeko. Pare bat bidegurutzetako gehiago igaro eta segituan da ibiltaria lehendabiziko joan-etorriko jomugan.

Zelaiak eta zuhaitzak, hau da, belarra eta egurra ugariak dira bide osoan. Ingurune hau gertu izatearekin ez da harrizkoa Gabirondo segan eta trontzan trebea

izatea. Trebe izatean baino, lehen izatean dago gakoa, ordea, eta hori berak eta gutxi batzuk baino ez dute lortu.

Beste bi joan-etorri

Plazara bueltan, beste bi joan-etorri geratuko zaizkio ibilbideari. Bata, Gabirondo baserritik itzultzean ibiltariak daraman noranzko berean aurrera jarraituta. Hain zuzen ere, hiru baserriren azpialdera iritsi arte. Bestea, ezkerrean hartuta. Elizaren aurretik igaro, eta udaletxera jo behar da. Tartean, eskultura bat ere ikusi ahal da, Juan Inazio Goikoe-txea idazleari eskainia. Herriak utzi du beste idazle, bertsozale eta euskaltzain handi bat, Joxe Mari Aranalde. Martinenea, Dendari eta Apeztegia baserrien pareraino eta ermitaren oroimenez egitiko monumentura iritsi, eta plazara itzultzean bukatuko da ibilbidea.



FATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA

Noaua!!
www.noaua.com

DATUAK

- **Luzera.** 4.300 metro.
- **Ezaugarriak.** Hiru joan-etorri.
- **Hurbilketa.** Tolosara trenaz edota autobusez iritsi, eta ondoren autobusa hartu Gazteluraino.
- **Hasiera-bukaera.** Gazteluko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak.
- **Azalpenak.** Txangoa inguru zoragarrian.
- **Interesguneak.** Eliza, udal-etxea, garbitokia, naturgunea.

ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu,
ONGI EGIN badezakegu?



Nahastutako bilketa = Kutsadura
= Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea
= Osasuna



Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzeko gaitueiako
Ongizate arrazoiengatik
Semere-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz

IRURXKO
UDALAK

Otañok jantzi dezake Urrezko Aizkolarien txapela

Ibarrako aizkolaria maila nagusiko finalean ariko da, igandean, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan

Rebeka Calvo

Egur Sport enpresak antolatu ohi duen Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa azken txanpan dago. Izan ere, igandean, hilak 10,

maila nagusiko, 23 urtez azpikoekin eta 19 urtez azpikoekin finalak jokatuko dituzte Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.

Maila nagusia

Ibarrako Unai Otañok Etxarriko Floren Nazabal eta Dimako Aitzol Atutxa II.a izango ditu aurrez aurre. Nazabalek behin baino gehiagotan irabazi du txapelketa, nahiz eta iaz ez zuen parte hartu. Atutxa II.a lehiaketako egungo txapeladunordea da eta baita 23 ur-



Unai Otaño ibararra, HITZA

tez azpikoekin txapeladuna ere. Otaño, bere aldetik, 2012ko txapelketa lan txukuna egin du, eta aurren binakako txapelketa ere irabazi du. Final hau izango da, gainera, banaka egiten duen lehenena.

23 eta 19 urtez azpikoak

Azpeitia bertako Mikel Larrañaga, Iturengo Ander Erasun eta Arabako Federazioko txartelarekin aritzen den Segoviako Jon Rodriguez II.a 23 urtez azpikoekin maila

lako finalean ariko dira. Hiruek 5 erako 11 ebaketa egin beharko dituzte, eta ez dute iazko erreferentziarik izango, ez baituzten finalean iristeko txartelirik lortu.

Azkenik, 19 urtez azpikoekin finala ere izango da, igandean, eta bertan Leitzako Eneko Saralegik hartuko du parte, Beizamako Eneko Otaño eta Otsagabiako Iker Vicenterekin batera. Eneko Otañok iaz, maila berean, txapela jantzea lortu zuen. Hiruek 3 erako 6 ebaketa egin beharko dituzte.

Herriarteko eta eskolen arteko txapelketak jokatuko dira gaur eta etzi

Patxi Zeberio erremontista elduaindarrak Gipuzkoako Erremonte Kopa jokatuko du

A. Imaz

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa final laurdenetara iritsi da. Eskualdetik bi ordezkari jarraitzen dute bizirik: Bidegoianek eta Berrobik. Kanporaketa gaintuztuz gero, gainera, elkarren aurka ariko liriteke finalerako lehia. Aurrez, ordea, Bidegoianek Azkoitia kanporatu beharko du, eta Berrobik Andoain. Joaneke lehiak gaur jokatuko dira, Azkoitia 22:00etatik aurrera, eta Andoain 21:00etatik aurrera. Itzulera-ko partidak, ziurrenik, hurrengo ostiraldean izango dira.

Nafarroako eskolen arteko pilotari txapelketari dagokionez, Areson finalerdietako partidak jokatuko dira hilaren 10ean, etzi. Eguraldi txarra eginez gero, lehia hauek Gorritiko pilotalekuan jokatuko dira.

Gipuzkoako Erremonte Kopa

Foru aldundiak, Euskal Jai Berri Erremonte Federazioarekin batera III. Erremonte Kopa antolatu du. Txapelketan hiru bikote ariko dira, eta horien artean dago Patxi Zeberio elduaindarrak. Zeberio II.ak Ionekin osatuko du bikotea, eta Urriza-Etxeberria III.a eta Etxabe-San Miguel izango dituzte aurkari.

Gipuzkoako Erremonte Kopa bihar hasiko da, 11:00etan, Lazkaron. Zeberio II.a bertan egongo da, txapelketako lehen partida jokatuko asmoz. Hiru bikoteren artean ligaxka jokatuko ondoren, bi lehenengoek finala jokatuko dute Zestoan, hilaren 29an.

Esku pilotako lehen eta bigarren mailako finalak atzeratu dituzte

Oinatz Bengoetxeak bihar jokatuko du lehen mailako finalerdia, Aimar Olaizolaren aurka, Labriten

Asier Imaz Leitza

Esku pilotako lehen eta bigarren mailako finalak atzeratzea erabaki dute, pilotariek lesioekin izan dituzten arazoak medio. Jon Jaunarenak bigarren mailakoa ekainaren 30ean jokatuko luke, eta finalerdia gaintuztuz gero, Oinatz Bengoetxeak hilaren 24ean.

Leitzarretan beteranoenak, ordea, lehenik eta behin Aimar Olaizola utzi beharko du finalerako. Partida erabakigarri hau bihar jokatuko da, Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Pilota jaialdia 17:15ean hasiko da, eta txapelketako partida jaialdiko bigarren lehia izango da. Aurrez, Olaizola I-Apraizek Arretxe II-Beginoren aurka jokatuko dute.

Eskuetako minez

Bigarren mailako txapelketaren finalean Jaunarena leitzarra eta Ezkurdia neurtuko dira. Final ikusgarri hau, berez, asteburu ho-

netan jokatzea zen, baina enpresen ligatik azaldu dutenez, atzeratzea erabaki dute. Kasu honetan ez da pilotari baten arazoa izan, atzeratzearen arrazoia, bai zik eta biera. Dirudienez, Jon Jaunarenak eskuetan arazoak ditu, minduta izaki, eta Ezkurdia- ren kasuan, eskuineko orkatilan sindesmosis-a hautsita dauka. Gauzak honela, final handia hilaren 30ean jokatuko da.

Enpresen ligatik ez dute oraindik zehaztu lehia hau non jokatuko den, baina egunkarietan agertu denaren arabera, Iruñeko Labritek ditu aukera gehien.

● tolosaldean@hitza.info

Helduentzat igeriketa ikastaroa antolatu nahi dute



Hogei urtetik gorakoentzat antolatu nahi dituzte; bilera hilaren 14ean izango da, Usabal kiroldegian

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak, hogei urte baino gehiago dituzten eta igerian egin nahi duten guztientzat igeriketa entrenamenduak eskaini nahi ditu.

Entrenamendu mota hauekin irailen hasiko liriteke. Interesatuta dagoen pertsona guztiek informazio zehatzagoa jaso dezaten hilaren 14ean, ostegunean bilera egingo dute. Usabal kiroldegiko bilera gelan 19:00etan izango da, eta nahi duten guztiek bertara joateko aukera izango dute.

Gipuzkoako zenbait lekutan dagoen eskaera, eta entrenamendua mota honek duen arrakasta ikusita, Tolosaldea IKTko kideak lanean hasi dira. Interesatuta dauden guztiek ahalik eta modu onenean entrenatzeko aukera izatea nahi dute.

Zerbitzu hau, triatlota egin, itsas zeharkaldiak, errehabilitazioa edota osasuntsu eta erabatekoa den kirol hau egiten hasi nahi duten guztiei zuzendua izango da. Interesa duen edonork, edozein zalantza edo galderarik izanez gero, 667 631 742 telefono zenbakira deitu dezakete, eta Joseba-rengatik galdetu.

● tolosa@hitza.info

Triatlolariak Ondarroa atzean utzi eta Zarautzi begira daude

Eskualdeko ordezkari zabalak joango da Euskadiko eta Gipuzkoako distantzia luzeko proba lehiatza

A. Imaz

Tolosaldeko triatlolariak emaitza onak pilotzen jarraitzen dute, eta maila hori erakusteko aukera berri bat izango dute bihar, Zarautzen, maila oso altuko XXVI. Triatlota jokatuko baita bertan.

Kirol gehienetan bezala, maila izenek ematen dute, eta Zarautzen punta-puntako triatlolariak egongo dira: Eneko Llanos, Mikel Elgezabal, Raul Amatriain, Fernando Gomez, Pedro Miguel Reig, Mathias Hetch eta abar.

Zarautzko proba distantzia luzeko Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketa izango da.

Eskualdeko ordezkariak

Tolosaldeko ordezkariak hauek izango dira: Aimar Agirresarobe, Xabier Ugarte, Sonia Muñoz, Maider Gaztañaga, Edu Gonzalez, Iñigo Esnaola, Aritz Iglesias, Gorka Sarasola eta Alar Sevillano.

Ordiziako Maider Gaztañagak podiumean egoteko aukera handiak ditu, eta Agirresarobe tolosarra lehen 15 postuetan sailkatzen saiatuko da.

Ondarroako proba

Bestalde, iragan larunbateko proba aipatu behar da: Distantzia olimpikoko Ondarroako triatlota. Irurako Itsaso Leunda Euskadiko txapeladun izan zen bertan,

eta Tolosako Aimar Agirresarobe Euskadiko txapeladunorde.

Gizekoetan Nicholas Kastelein australiarak irabazi zuen proba gogor hori, eta bigarren postuan Jon Unanue zarautzarra gelditu zen. Ondoren iritsi zen Aimar Agirresarobe tolosarra, Atletiko San Sebastian taldeko kidea, hain zuzen.

Zalakain eta Agirresarobe

Taldeka Tolosako Egoitz Zalakain eta Aimar Agirresarobe Euskadiko txapeladun gelditu ziren, Atletiko San Sebastian taldearekin. Zalakainek proba seigarren amaitu zuen.

Tolosaldeko Mahala triatlota taldekoak Ondarroan ondorengo emaitzak lortu zituzten: Ion Artutxa 70.; Edu Gonzalez 109.; eta Igor Otero 264.

Biharko antolatu duten jaialdiarekin, alegiarrek herria kantuan jarriko dute

22:00etan hasiko da ikuskizuna, eta hogei emanalditik gora izango dira; herritar asko pasako da taula gainetik

Enertiz Maiz Alegia

Herria Kantuan II. Jaialdia ospatuko da Alegian, bihar. Musika, dantza eta antzerkia uzartuko dituen emanaldia izango da. Alegiako kultura batzordeak bigarren urtez antolatu duen jaia da, eta 22:00etan hasiko da herriko plazan. Emanaldia girotzeko, 20:00etan zahagi ardoa egingo dute.

Herritar guztiei luzatu diete jaialdi honetan parte hartzeko gonbita. Guztira, hogei emanalditik gora ikusi eta entzun ahal izango dira. Gainera, batzordeko kideen hitzetan, «herriko talde zein bakarlarrien arteko elkarlana bilatu dugu jaialdi honen bidez, eta bihar elkarlan horren adibide bat baino gehiago ikusiko dugula



Hogei emanalditik gora izango dira; lehena 2008. urtean egin zen. RENOBALDES

↓ II. Herria Kantuan

EKAINAK 9, LARUNBATA

- **20:00.** Zahagi ardoa, herriko plazan.
- **22:00.** II. Herria Kantuan emanaldia hasiko da.

koan gaude», adierazi dute. Musika, dantza eta antzerkiak gozatze-ko aukera izango da, hortaz. Adin eta era askotako herritarrek elkartu dira. Trompeta, dultzaina, baxua, txirula, bonbardinoa, tri-

kitia, bonboa, kaxa, pianoa, gitarrak, txalaparta, alboka, txapak, saxoa, panderoa eta ahotsa uzartuko dituzte.

«Luzea da larunbateko jaialdian parte hartuko duten herritarren zerrenda, luzea eta oso anitza, gainera; batzuk, urtean zehar gehiagotan ere ikusi ohi ditugu taula gainean; beste batzuk, ordea, ez hainbestetan», gaineratu dute.

Kultura batzordetik, «hobere-na», bihar, 22:00etan herriko plazara hurbiltzea dela nabarmendu dute.

Baserri paisaiak aztertzeke saio irekiak izango dira

Tolomendik herritarrei parte hartzeko deia egin die; hilaren 13an eta 17an izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara

E. Maiz

Baserri paisaiak aztertzeke eta ekimenak proposatzeko saio irekiak antolatu ditu Tolosaldeako Landa Garapen Elkarteak den Tolomendik. Baserri paisaiak dituzten elementu bereizgarriak identifikatzeko eta horiek kontserbatzeko proposenak diren ekimenak proposatzeko aukera izango da. Eskualdeko landa paisaiaren altzorrak ezagutu, zaindu eta ezagutarazteko, bertako herritarren ikuspuntutik eta irizietatik abiatuko dira.

Parte hartu nahi duenak, *paisaia.atl@paisaia.com* helbidera idatzi edo 943 33 50 48 / 686 738 152 telefono zenbakietara deitu dezake. Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortu eta mantendutako pai-

saiak, gure eskualdearen izaera eta nortasunaren oinarri dira. Horrez gain, baserri paisaiak eskualdearentzat baliabide ekonomiko garrantzitsua dira, bereziki lehen sektoreari eta turismoari lotuta. Azken hamarkadetan lehen sektoreak izan dituen aldaketen ondorioz, baserri paisaiak nabarmen aldatzen ari dira, eta aurrrera begira hirietatik kanpo dauden landa paisaia horiek nolakoak izatea nahi dugun erabaki beharra dago.

Guzti horren inguruan hausnartzeko, Tolomendik herritarrei zuzendutako bi parte hartze saio antolatu ditu; hilaren 13 eta 27an izango dira 18:00etatik 20:00etara Villabonako Mintzola Fundazioan. Saiotan baserri paisaien baliok identifikatuko dira, eta horiei probetxua ateratzeko ekimenak proposatuko dira. Proiektuaren helburuen artean daude lehen sektoreak guztion ongizateari egiten dizkion erakpenen artean baserri paisaien baliok mantentzeari dagozkionak azpimarratzea.

Bedaioko Mendi eta Bizikleta ibilaldiak hilaren 17an izango dira

Guztia behar bezala prestatu ahal izateko, antolatzaileek izena aldeztu aurretik ematea nahi dute

E. Maiz Bedaio

Bedaio VI. Mendi eta V. BTT ibilaldiak hilaren 17an, igandean, izango dira. Artubi kultur elkar-

teak antolatzen du mendi egun hau, eta ahalik eta zerbitzu egokien ematearren parte hartzaileei aurretik izen ematea eskatzen dute. Krisi garai honetan honelako ekitaldiak antolatzeak bere ardurua puntua du, eta ez dute parte hartzaileak janaririk gabe gertatzea nahi.

Izen ematea irekita dago, eta *www.bedaio.com* webgunean, *mendimartxa@bedaio.com* helbidera idatziz edo 620 199 166 telefo-

nora deituz egin daiteke. Izena ematen duenak 10 euro ordaindu beharko du.

Oinezkoen irteera ordua 07:30ean eta BTT ibilbidearen irteera ordua 08:30ean izango dira, frontoitik. Ibilbidean Artubi, Azkarate edota Añi igoko dituzte. Oinezkoek 6-8 orduko ibilaldia eta BTTkoek 4-5 orduko proba gogorra izango dute. Bost kontrol gunetatik pasa beharko dute parte hartzaileek.

Goiz-Biniko zinegotziek dimititu egin dute

Hiru udal ordezkariak maiatzean eginiko osoko bilkuran arazo pertsonalak argudiatuta aurkeztu zuten dimisioa

E. Maiz Bidegoian

2012ko maiatzaren 30ean eginiko ohiko osoko bilkuran Goiz-Biniko udal taldeko zinegotziek beraien

dimisioa aurkeztu zuten. Pedro M^a Arzallus Egiguren, Jose Javier Dorronsoro Aseginolaza eta Andoni Uzkudun Iraola zinegotziak dira beraien dimisioa aurkeztu zutenak.

Urtebetez legegaldia bete ostean, arazo pertsonalak argudiatu zituzten hiru zinegotziek. Ohiko osoko bilkurara bertaratutako kideek aho batez onartu zuten hiru udal ordezkarien nahia.

oalegaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



19°
14°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	24°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosalde.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



**Urte askoan!
Manex Begiristain.**

Ekainaren 10ean 5 urte.
Zorionak etxekoan partetik,
batez ere, Maddi eta Xubanen
partez. Txokolatzeko muxuak.



**Urte askoan!
Lurdes Zubillaga Tolosa (Bedaio).**
Bihar 57 urte! Zorionak eta
muxuak, familia osoaren eta,
bereziki, Alaitz, Maddi eta
Asierren partez.



Lagunik hoberena izango zara betiko.



Urte askoan!

Arkaitzek igandean 10 urte, Nagorek astlehenean 7 urte eta Anartzek ekainaren 24ean 2 urte!
Alegiako anai-arrebentzat, zorionak, muxu asko eta ondo-ondo pasa familia guztiaren partez.

Uda honetan **zatoz**
HITZAren itzalera

Egin harpidedun
harpidetza hitza.info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

**Tolosan etxe
adosatua salgai:**
eguzkitua, lau gela,
bi bainugela,
komuna,
egongela-jangela
handia, sukaldea,
bi autorentzako
garajea, txokoa,
jardina eta
trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R.
Zaballarreta, 1.
Telefonoa:
943 67 38 49.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I.,
Korreo kalea, 20.
Telefonoa:
943 67 60 13.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Plaza, M. T.
Elbarren, 36.
Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.
■ **Arribe.** Garmendia, A.
Kale Nagusia.
Telefonoa: 112.
■ **Iruztun.** Gastearena, M.
Amaya kalea.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Meritx Pasaolaeta, 95
28008 Donostia
943 310 873
www.ceinpro.es

TITULAZIO OFIZIALAK

- 01. AURREINPRIMAKETA
DIGITALEAN TEKNIKARIA
GOI MAILAKO**
- 02. DISEINU ETA
PRODUKZIO EDITORIALEAN
GOI TEKNIKARIA
GOI MAILAKO**
- 03. GOI TEKNIKARIA 3D ANIMAZIOAN,
JOLASAK ETA INGURUNE
INTERAKTIBO ADITUA
GOI MAILAKO**